



Nazioarteko adituak egongo dira **BE**Ceko Mintzola Terrazan

Abenduaren 17an jokatu den Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean izango dira nazioarteko ikertzaile eta inprobisatzaile zaletuak horretarako bereziki egokitutako gunean.

Urtean zehar garatzen diren egitasmoen bitartez egindako harremanak kontuan hartuta, nazioarteko adituak gonbidatu dira abenduaren 17an BECen jokatu den finalera. Ahozko kantu inprobisatuaren alorrean ekitaldi bakana dugu Bertsolari Txapelketa Nagusia eta bere finala, eta ikusmira handia sortzen du etxean zein kanpoan.

2008ko Txapelketa Nagusian Missouriiko Unibertsitate gurean izan zen John Foley ahozkotasanaren ikerkuntzan

erreferente zena. Hark esan zuen "genero honetan lau urtetik behin txapelketa antolatu eta horrelako jendetza biltzen duen ekimenik" ez zuela ezagutzen. Ondorioz, asko izango dira Mintzola Ahozko Lantegiak gonbidatuta abenduaren 17an BECen izango diren nazioarteko adituak.

John Zemke Missouriiko Unibertsitateko Center for Studies in Oral Tradition-eko egongo zuzendaria da eta gurean izango da finala bertatik bertara jarraitzeko. 1986an sortu zen ikertegia John Foleyren eskutik eta ahozkotasanaren alorrean aitzindari eta erreferente nagusi da mundu mailan. Zemke bera Donostia 2016 Kultur Hiriburua baita Mintzolak antolatu zuen Europa bat-batean topaketan izan zen iaz, gurean.

Jacqueline Urla ikertzaile estatubatuarra ere izango da finalean. Antropologian aditua da, eta euskal identitatearen inguruko tesia egin zuen doktoretzarako. Gerora ere hainbat lan argitaratu ditu euskal kulturari loturik. Era berean, Birmingham Unibertsitateko etorriko da Karin Barber antropologoa, herri kultura eta ahozko adierazpideak bere interesgune izanik. Eurekin batera egun bertsolaritza aztertzen ari diren hainbat ikertzaile egongo dira, baita UPV/EHUko eta Mikel Laboa Katedrako ordezkariak ere.

Bestalde, Galizian regueifarekin eta Katalunian zein Mallorcan glosarekin lanean dabiltzan elkarteko

ordezkariak izango ditugu. Bertsozale Elkarteak Mintzola bitartez eurekin duen harremana etengabea da eta elkarlanean hainbat egitasmo gauzatzen dira. Andaluziako trovadoreak, Sardiniako cantadoriak eta Kurdistango dengbêjak ere bertan izango dira. Horrez gain, atzerriko zenbait hedabide ere izango dira tartean.

Mintzola Terraza aberatsa izango da beraz, eta erdal hizkuntzetan mintzo diren bertsozaleak erakarriko ditu, hemengo sorkuntza kanpora ere hedatuz.



**MAIDER
ARREGI MARKULETA
Baiona, 2017-XI-25**



Hernandorena bertso sariketako txapelduna

Doinua: Igo aurretik lasai

Ni berez beganoa naiz eta ezta broma baina arkumeaz pozik egongo da aitona. Txapelak ematen digu sarri zoriona neri ere emango dit noski umore ona. Txapelak ematen digu sarri zoriona nik eramango dut baina zuentzat Baiona!

Mintzola Terrazan nazioarteko ikertzaile eta inprobisatzaile zaletuak egongo dira.//XDZ

Finalerako autobus eta hartzaindegi zerbitzua eskainiko ditugu

Irailaren 23an Baigorriin hasi zen Bertsolari Txapelketa Nagusia abenduaren 17an amaituko da Barakaldoko BECen. Egun handi horretaz ahalik eta gehien gozatzeko, oinarrizko ohar batzuk eman nahi dizkiogu bertsozaleari.

9:00etan zabalduko dira Bizkaia Arenako atea abenduaren 17an, Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala hartzeko. Sarrera bakoitzak bere kodea du, eta beraz, sarrera berarekin ezingo da pertsona bat baino gehiago sartu. Antolakuntzako kideek bideratuko dute sarbidea, ahalik eta lasaiena izan dadin. Eserlekuak ez dira zenbakitua.

Jarleketan finaleko aldizkaria jasoko dute bertsozaleek eta bertan aretoaren inguruko informazioa zein kontutan hartu beharreko oinarrizko oharak agertuko dira. Goizeko saioa 11:00etan hasiko da.

Hori amaitu ostean, Bizkaia Arena pabiloia erabat hustuko da, ezingo da aretoan bertan bazkaldu; eta antolakuntza ez da galdu daitezkeen objektuen erantzule egingo. Bazkaritarako gunea 6. pabiloian izango da, Bizkaia Arenatik berrogeita hamar metrora. Bazkaritarako txartela dutenek zein etxetik bazkaria eramandakoek han izango dute otordua egiteko aukera. Horretarako mahaiak eta aulkiak izango dira bertan.

Arratsaldeko saioa 16:30ean hasiko da eta 20:00ak aldera bukatzea aurreikusten da.

Behar bereziak eta hartzaindegia

Aretora sartzeko, saioa segitzeko edo antolakuntzako autobusetan joateko behar bereziren bat duten pertsonak finala baino lehen antolakuntzarekin jarri behar dute harremanetan txapelketanagusia@bertsozale.eus helbidean.

Era berean, BECen hartzaindegi zerbitzua eskainiko da. Aurrez izena eman behar da aipatutako helbide berean.



Garraio publikoan

BECera joateko garraio publikoa erabiltzea gomendatzen du Bertsozale Elkartek. Finalera ikustera joateko autobus zerbitzua antolatu dugu, Aizpurua Autobusak taldearekin elkarlanean. Autobus txartela erosi dutenek abenduaren 12an jakingo dituzte autobus bakoitzaren abiapuntu zehatza eta ordutegia. Erosketa egin den posta elektronikoan mezu bat jasoko dute informazio horrekin. Halaber, www.bertsozale.eus webgunean ere egongo da informazioa.

BECera metroz edo trenez joatea da beste aukera. www.metrobilbao.eus eta www.euskotren.eus helbideetan dituzue ordutegiak eta prezioak.

Saioa zuzenean

Finalerako sarrera guztiak aspaldian salduta, etxetik edo lagunartean saioa ikusteko aukera ere izango da. ETB1 telebista kateak eta bertsoa.eus plaza digitalak finala osoz eskainiko dute, Aitzol Barandiaran eta Uxue Alberdiren komentarioekin. Euskal Herriko beste hedabide askok ere finalaren jarraipen zabala egingo dute.



Antolakuntzaren oharrei uneoro kasu egin elkartutako guztiok egunaz hobeto gozatzeko.//XDZ

Mungian ospatuko da Bertso Eguna urtarrilaren 27an

Urtebeteko etenaren ostean itzuliko da Bertso Eguna. Kantuen letra sorkuntza eta bertso idatziak gai hartuta egun osoko ekitaldia antolatu du Sustapen sailak, Mungiako Udalaren eta Taket Mungiako Bertsolari Elkartearen laguntzarekin.



Bertso bazkariak eta arratsalde ekitaldia izango ditu Bertso Egunak //XDZ

Jone Uria, Maddalen Arzallus, Iñaki Gurrutxaga eta Alaia Martin ari dira egun osoko ekitaldien gidoiak prestatzen. Ekitaldien hurrenkera berria izango du Bertso Egunak: goizean mahai-inguru musikatua izango da Mugire Txokoan. Hiru bertso bazkari paralelo izango dira gero, eta bina bertsolari arituko dira kantuan herriko hiru elkarte gastronomikotan; bakoitzean 60-80 bazkaltiar eta entzule izango dira. Arratsaldeko zazpitan izango da eguneko ekitaldi nagusia: Alaitz Rekondoren esanetara arituko dira Amets Arzallus, Manex Agirre, Xebastian Lizaso, Oihana Bartra eta Unai Iturriaga. Ez dira artista gonbidatuak faltako.

Ekitaldia amaitu arren, ez da festa bukatuko. Bertsozale Elkarteak abenduaren erdialdera jakinaraziko du urtarrilaren 27an egingo den Bertso Egunaren egitarau osoa. Sarrerak abenduaren 21ean jarriko dira salgai www.bertsosarrerak.eus atarian.

Atzera begiratu, urte luzez Donostiako Udalak emandako laguntza eskertu nahi du Bertsozale Elkarteak.

Banatu dira 2017ko proiektu sariak

Ane Labakaren eta Beñat Muguruzaren proposamenak izan dira UPV/EHUko Mikel Laboa Katedrak eta Mintzola Ahozko Lantegiak egindako deialdiko irabazleak.

Bertsolaritzari lotutako ikerketa proiektuak esleitu ditugu aurten ere Mintzola Ahozko Lantegiak eta UPV/EHUko Mikel Laboa Katedrak. Bi sari zeuden banatzeko, eta Ane Labakak eta Beñat Muguruzak jaso dituzte. Labakak 2017ko *Bertsolari Txapelketa Nagusiko umorea aztergai, genero-ikuspegitik* ikerketa aurkeztu du. Aurretik ere umorea eta genero ikuspegia uztartzen zituen ikerketa lana osatu du, aurreko deialdi batean eskuratutako sariari esker. Beñat Muguruzak aurkeztutako proiektua *Hitanoa bertsolaritzan: behera baina nola? izan da, eta horrek ere, ikertzeko saria jaso du.*

Proiektu sari horien deialdia 2014tik egiten da, eta ikerlanek doktore tesietarako bidea errazten dute. Ikerketa deialdi horiei zein beste erakundeek martxan jarritakoei esker, ikertzaile asko dira gaur egun bertsolaritza ikertzearen aldeko hautua egin dutenak. Horrela, bertsolaritza jakintza alor ezberdinetatik aztertzen duten ikerketak gero eta gehiago dira.



Umorea eta generoari buruz ikertzen jarraituko du Ane Labakak//XDZ



Puntu jarrita

EGOITZ EIZAGIRRE ADURIZ

Hari mutur asko utzi dituk, Habana, mataza batean bildu, lazoa egin eta ezer azkar eta ondo erantzuteko! Plazak ala txapelketak ematen dion bertsolaritzari gehiago, alajaina. To! Tesi doktoral baterako gaia, puntu erantzun batean jorratzeko. Barkatuko didak, hain galdera orokorretik erantzun konkretuegirik ez badator, edo erantzuna aurreko puntuan, "jaialdia ala bertso afaria nahiago?" galdetu didatenean eman, eta esateko ezer berririk ez badut. Txapelketan ere horixe gertatzen duk belaualdi berrien eta ez hain berrien puntu erantzunekin, joskera naturalarekin zer ikusi gutxi dik deserosotasunak, nik uste. Plazan eroso, dotore eta jostalari entzun ditiat noizbait gehienak. Baina honek bigarren tesi bat beharko likek eta, gaurkoz, batekin nahikoa!

Lazkao Txiki esana duk galdera guztiak direla errazak, erantzunak direla zailak. Erantzun zaila galdera erraz batekin emango diat nik: txapelketa ez al da plaza? Askoz tarte handiagoa zegok, Ortzakako festetako bertso afaritik Orioko festetako jaialdira, azken honetatik txapelketa nagusiko saio batera baino. Nik denak maite dizkiat.

Moldeko bertsolaritza aipatu duk. Arkaitz Goikoetxeak gozatu latzak eman izan zizkidak txapelketan, Ortzakako afaritan ez zaidak tentagarri. Iker Zubeldia alderantziz. Txapelketari leporatu izan zaiok molde jakin bateko bertsolarientzat dela, baina Arkaitzek bertso afaritarako atea itxiago izan dizkiat, Ikerrek txapelketakoak baino. Txapelketan lekua molde guztiak ditek. Finalurrekoetako lehenengo itzulia bukatuta, aurreneko zazpi postuetan, zazpi molde ikusten dizkiat nik. Denak desberdinak.

Bietatik probatua duk eta Estitxu Fernandezentzat puntua. Txapelketan zer aldatzen dun gehiago, bertsolarien mihia ala entzuleon belarriak?

Koplak

Urteko batzarrak, urte hasierarako hitzorduak

2018ko lehen hilabeteekin batera, herrialdeetako elkarteek urteko batzarrak egiteari ekingo diote. Araban izango da lehena, urtarrilaren 13an, eta astebete geroago, Nafarroan, urtarrilaren 20an. Gipuzkoako otsailaren 1ean egingo du bere batzarra, eta Bizkaiko Elkartearen txanda izango da aste berean, otsailaren 3an. Bertsularien Lagunak elkarteak ere otsailean egingo du, 17an. Herrialde guztiek egin ostean, azkenik, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak batzarra martxoaren 10ean izango da.

Poto-Finixa



Ez zaigu poza argazkian kabitzen!

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Goienkale 38an izango dugu mahaia Durangoko Azokan

Aurtengoan ere Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak eta Lanku Kultur Zerbitzuek mahaia jarriko dute Durangoko Azokan. Mahaia Goienkale 38an egongo da eta bertsolaritzari buruzko argitalpenak eta materiala erosi ahal izango dira. Bestetik, Ahotsenean eta Saguganbaran ere lau emanaldi eskainiko dira Lanku Kultur Zerbitzuei esker.

**BERRIAK
JAIO
GINEN**

JON MAIA SORIA

**LIBURU
BERRIA!**

Liburua erosteko eta informazio gehiago jasotzeko:

Lanku
www.lanku.eus
943 26 07 55

PUBLIZITATEA